


13. Eskerraldia: Emilio Ilarregi eta Iñaki Aldekoa

Iruña-Veleia Martxan Elkarte



Emilio Ilarregiri eskerrak emanez

Emiliok jatorriz gasteiztarra historia eta arkeologia irakaslea zen Segobiako unibertsitatean. Grafitoen benetakotasuna aldeko txosten bat egin zuen.

Eliseori lagundu zion.

Gasteizen euskal txanponei buruzko hitzaldi bat eman zuen.

Biziki eskertu nahi diogu dena.

Iñaki Aldekoari Iruña-Veleia argitzen laguntzeagatik eskerrak emanez!

Iñaki Aldekoak, Aralar alderdiko Arabako batzar nagusietako ordezkari gisa bizi izan zuen Iruña-Veleiako estatu kolpea, Aldundiak 2012ko azaroaren 19an Lurmen kanporatu zuenean eta grafitoak faltsuak direla lau haizetara zabaldu zuenean.

Egunkarietan erasoak hasi zirenean El Correoren eskutik, egin zuen kasu horietan egin behar dena: arakatzen eta galdetzen hasi. Lehenengo gauza Henrike Knorregana joatea izan zen, orduan Euskaltzaindiaren lehendakariordea eta Euskal Filologiako katedraduna EHU-n zena. Henrikek argi esan zion bere ustez egiazkoak zirela baina agian Lurmenek proposatutakoak baino berriagoak, San Juan komentua IX. mendera arte egon zelako han eta agian estratuak aztertzerakoan erratzeko aukera egon zitekeelako baina Eliseoren fede onari buruz ez zuen zalantzarik erakutsi.

Orduan bidegabeki Lurmen indusketatik kanporatu zuen Lorena Lopez de Lacalle EAko diputatuarengana joan zen eta Henrikeren eritzia bota zion. Eta Lorenak honela erantzun

zion gazteleraz: «Iñaki, Vatikanoko Museora deitzen dugun bakoitzean gutaz barre egiten dute»;

Hau ikusi zuenean Iñaki Batzar Nagusian gaia argitzeko ekimenen bat burutu zuen, Aralarren izenean, Podemosetik kanporatutako hiru batzarkideekin batera bakarrak izan direnak, 12 urte hauetan, gai hau argitzeko zerbait egin dutenak. Gainerako alderdiek ez dute inoiz ezertxo ere egin eta beti beste alde batera begira egon dira.

Esaldi labur baina garrantzitsu hau gertatutakoa ulertu ahal izateko funtsezkoa da. Esaldi hau Eusko Jurlaritzan 2019an egin zen bilera batean esan zuen. Bilera horretan lehenengo aldiz Iruña-Veleia Argituko bi kide, Iñaki Aldekoarekin laguntzarekin, batzartu ziren Bingen Zupiria kultura sailburuarekin eta Mikel Aizpuru kultura zuzendariarekin.

Eskaera argia egin zieten: epaiketa gelditzeko eta datazioak egiteko. Bingenen erantzuna lotsagarria izan zen: epaiketa egin dadila eta gero ikusiko genuela. Argitukoek gobernuko ordezkariari argi esan zieten ganorazko dataziorik gabe Jurlaritzak epaiketan 300.000 euroko isuna eskatzea onartezina zela eta funtsik ez zuela. Batetik onartezina zen euskal herritar bat zientifikoki ondo frogatu barik zigortu nahi izatea. Bestetik Jurlaritzaren iritziz faltsuak baziren ez zelako normala grafiko bakoitzeko 500 euroko isuna eskatzea baliorik ez zuten zeramiketan marrazteagatik.

Iñaki Aldekoak aipatutako Lorenaren esaldia zergatik da garrantzitsua? Bada argi erakusten duelako Lorenak grafitoak laborategietara bidali eta horiei galdetu beharrean, Vatikanora bidali eta haien iritzian oinarrituta hartu zuelako erabakia.

Iñakik SOS Iruña-Veleiako eta Iruña-Veleia Argituko prentsaurrekoetan eta ostegunero Aldundiaren aurrean egiten ziren enkarteladetan parte hartu zuen sarritan. Eta Deia bidalitako artikulu batean Iñakik bere iritzia argi azaldu zuen: <https://blogak.goiena.eus/elexpuru/2021/04/09/inaki-aldekoa-hil-da/>